

# IRAKURLEAREN TXOKOA



## GORPUZTI EGUNEKO SARRASKIA

Goizez, txakurrarekin bueltatxo bat eman nuen erriberatik. Goiza ederra zen eta sargori egiten zuen. Ibaiak garbiagoa zirudien, baina, bai zera! Zuhaitz eta aldasketako hosto sortuberriak uretan isladatzen zirelarik, ur berdearena irudikapena besterik ez zen. Hala ere, birigarroen kantu eta txorien txilioek bihotza pozten zuten. Udaberriak airea garbitu du eta gustora egin nuen paseoa.

Arratsalde, biaoa egin eta jeiki orduko zerbait arraroa antzeman nuen. Leihoa ireki eta, sekulako kaiohotsak blasta jo ninduen. Kaio-mordoak zeuden airean; legarrak eta ibai bazterrak zuritzen zituzten. Aginagako zaharrenek aitortu didatenez, oso gutxitan ikusi omen da paraje honetan hainbesterainoko kaio-pilarik. Ez nion tankera onik igerri: goizean ez nuen kaio bakar bat ere ikusi, eta arratsalderako hainbeste. Lehenbizi, aurreko egunetako ekaiztxoak gogoratu, berebiziko ekaizta botako zuela pentsatu nuen. Baina, badaezpada ere ibai ondora hurbildu nintzen.

Hasiera batean kosta zitzaidan ezer aurkitzerik, beharbada nere begiek horrelakorik ikusi nahi ez zutelako. Ikusi nahi eza alferrikakoa izaki ordea. Hantxe agertu zitzaizkidan ehundaka arrai hilda: korkoi, aingira, lupi, barbo eta abar. Denak hilik zeuden. Ez nuen sinestu nahi. Goizean ezer ez zegoen eta ordu batzuetan horrelako kaltea. Ez da posible!

Baina, errealitatea hantxe ikus nezakeen. Momentuero beste arrairen bat agertzen zen hilda, tripaz gora. Aingira eta korkoiek burua ateratzen

zuten, uretatik ihes egin nahian bezala. Kaioek putre-papera jokatu besterik ez zuten egiten. Orduantxe ari zen gertatzen sarraskia: maiatzaren 25ean, eguerditik aurrera. Beti bezala jai egun bat (edo uholderen bat bestela) aukeratu zuten. Pozoiak ez zuen denbora luzerik behar izan ibai zikin honetan hainbeste nekez sortutako bizitza-arrasto guztia erretzeko.

Ez dut irazkinik egin nahi. Ostegun, ostiral, larunbat eta igandean Ori ibaiko arrai guztiak hil dira. Berriro ere, enpresaren batek bere pozoia putzura jaurti du. Behar bada, berriro ere analisiak egingo dituzte eta, agian, enpresari isunen bat ezarriko diote. Baina, dagoeneko, ez dio axolarik. Ibaia hil egin dute eta, jada, ezerk ez digu axola. Baina aginagarroi berebiziko pena eman digu bihotzean. Ori ibaian zegoen bizia (dagoena?) ezagutzen dugunoi min haundia eman digute. Min eta pena hori ezin da konpondu eta ezta goxatu ere. Aurten lertxunkumeek ez dute aingiratorik jango.

Kaka zaharra, besterik ez, enpresari zapo pozoizalearentzat. Kaka zaharra erakunde itsu elbarrituentzat. Kaka zaharra gure Ori ederra maite ez duten ekologista eskizaleentzat. Kaka zaharra Oriaren leienda beltza, Europako ibai zikinenarena, zabaldu dutenentzat. Ziur bait nago enpresari hiltzailea ez zela kontziente. Bere ustez, ekintza horrekin hildako ibai ustela gehixeago zikinduko zuen. Besterik ez.

**Kaperutxipi (Aginaga)**

## GALDERA

*Oso ezagunak dira fruitarboletan txertaketak; guztiz arruntak bait dira gure baserrietan. Txertaketa horiek orokorrean espezie bereko (nahiz eta mota desberdinetakoak izan, denok ikusi ditugu noizbait mota desberdinetako aleak ematen dituzten arbolak) landareen artean egiten dira.*

*Nere galderak ondokoak dira:*

- Zertan datza elorriaren ezaugarri hori?
- Elorriak ez du normalean bere enborrean lodiera handirik lortzen eta ezta altuera handirik ere. Txertoa izan duten zenbait ezagutzen ditut, zeintzuetan lodiera eta altuera zehazki zuhaitz-ereduari dagozkion. Zergatik hori?
- Elorria ongi hazten da lur ez-jori zein malda handikoetan. Beraz ez ahal litzateke egokia mendi-sail eta txarak uztiatzeko?

**Enrike E. Gisasola**

## ERANTZUNA

Fruitarbolen mentaketa edo txertaketa

ELORRI ZURIA mentu-oin bezala Mentaketa, zergatik?

Mentaketa, bi landare desberdinen zatiak elkartu eta bizitzeko gai den beste landare bat lortzea da. Mentaketaren ondorioz bi ama edo bi jatorri desberdin dituzten zatiez osaturiko landarea dugu. Mentu-oina, mentaketa-puntuaz azpitik gelditzen dena da eta landare berrian sustrai-sistema bilakatu da. Mentua, aldiz, mentaketa puntuaz gainetik gelditu-

ko dena da eta honek hostoak, loreak, fruitu eta haziak ekoiztuko ditu.

Zein dira mentaketaren arrazoiak? Garrantzitsuenak honako hauek:

- Fruitu-barietate bat lur batera egokitu ezin denean (pH-a, hezetasuna, lur lehorra, Ca gehiegi, gatzia, etab). Barietate hori ekoiztu nahi bada, lur horretan bizitzera egokituriko beste barietate batean mentatzea nahikoa izango da.
- Mentu-oina eta mentua elkartzean bien ehunek orbain bat sortzen dute. Orbain hau izerdiaren zirkulaziorako beti oztopo izango da. Mentu-oina eta menturaren kidesunaren arabera (familia, jeneroa, fisiologia, ...) orbainaren oztopoa handiagoa ala txikiagoa izango da. Oztopo hau areagotu ahala, mentutik bilakatuko den landarea ahulago eta txikiagoa izanen da, baina berak ekoiztuko dituen fruituak ugariagoak, handiagoak eta kalitatez hobeak izango dira. Frutagintzan ezaguna dugu "berdea" edo estruktura (adarrak, hostoak...) bilakatzen galtzen den indarra lore eta frutietan irabazten dela.
- Uniformetasuna lortzea. Jatorria hazia duten landareak eta ugalketa sexuala direnez, heterogenotasuna handia da (barietateak hortik datozkigu), baina mentu-oin barietate bati arbola baten mentuak mentatuz gero, landare uniformeak, fruitu uniformeak, garai berean, etab. lortzen dira.

Beraz MENTAKETA erabiltzearen abantailak handiak dira.

#### ELORRIA MENTU-OIN GISA

- Elorri beltza (*Prunus spinosa*), Prunus jeneroko fruitarbolak txertatzeko erabiltzen da: aranondoak, abrikotondoak, etab.
- Elorri zuriak, *crataegus* jenerokoak dira, eta aurrekoak bezala errosazeoen familiakoak. Euskadin elorri-zuriari sagarrondoa (*Malus sp.*) ia ez zaio mentatzen.

Mentuz lortutako fruitarbola



Askotan ordea madariondoa (*Pyrus sp.*) eta mizpirondo arrunta (*Mespilus germanica*). Ikusten dugunez, denak arrosazeoen familia-koak dira, baina jenero ezberdinak eta lehen argitu dugun legez afinitatea izango da mentuan (baina handiegia ez) fruitu-ekoizpen dexteoa lortuz.

Mentaturiko elorrien altuerari buruz, normalean, mentua aurrera ateratzen den kasuetan (eta fruituak lortu nahi ditugunez) zuhaitz edo arbola hori zaindu egingo dugu: lur onera eramán, inausi, ongarritu, gaitz eta izurriteei aurre egiteko tratamenduak burutu etab. Baldintza hauetan hazten den arbola sendoagoa, altuera handiagokoa etab. izango da. Txara sastrakatsuetan edo basa ertzean hazitako elorriak aldiz ez ditu laguntza hauek izango eta bere bilakaera, normalean, txikiagoa izango da.

Hala ere bada salbuespenik, eta

Gipuzkoan Errezilgo Erdoizta auzoan barruti bilakaturiko urkidi-kaxko batean bada 175 zentimetroko perimetroa duen elorri bat. Lasai hazten utzi (itzalik gabe eta barrutian ondo simaurturik) eta urte asko eta askoren poderioz ederki asko hazia da; zuk aipatzen duzun eran, zuhaitzen ereduen barne kontutan hartzeko moduan.

Mendisail eta txaren ustiapenari buruz, elorri bezala mentatu gabe ez litzateke ekoizpen egokirik lortuko, bere aleak konfitero bereziren bati saltzen ez baldin badizkiozu. Mentatuta egungo fruitagintzan horrelako toki aldapatsuak ez dira egokitzat jotzen; etekin egokiak lortzeko beharrezko diren tratamenduak, bilketak egiteko makineria etab. erabiltzea ezinezkoa gertatzen bait da. Malda handiko sailak basogintzarako egokiagoak iruditzen zaizkit.

**Jakoba Errekondo**